

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1
positibo berri
2.309
positibo guztira*
*Hernanin 66 Astigarragan 21

1.611
hildako

6
UCIn

NAFARROAN

8
positibo berri
5.451
positibo guztira
1
UCIn

Sendatuak EAE: 18.065 Naf.: 9.387

Esku pelota bueltan da eta gaur hasiko da Zikuñaga Txapelketaren bigarren edizioa, aurten 51 bikoterekin

C.D.Hernanik antolatuta 3 partidu jokatu dira egunean kiroldegiko frontoian, astelehenetik larunbatera. Txapelketa nork irabazten duen uztailaren 25ean erabakiko da, kategoria bakoitzeko final haundiak ospatzen direnean.

HERNANI PILOTA

Gaur hasiko da eskuz binaka jokatzen den txapelketa honen bigarren edizioa. C.D.Hernanik antolatu du torneo, Papelera Guipuzcoana Zikuñaga enpresaren babesarekin. Aurtengo parte-hartzea oso haundia izan da, 51 izango baitira astelehenetik larunbatera kiroldegiko frontoian partiduak jokatu dituzten bikoteak, uztailaren 25a arte.

Sei kategoriatan banatu dute txapelketa: Kadete 1º eta 2º mailan, Jubenil 1º eta 2an eta Nagusi 1º eta 2an. Nagusien lehenengo mailan hamaika bikote daude, baina gainontzeko kategoria guztietan zortzina bikote ariko dira.

Txapelketan parte hartuko duten zenbait bikote herna-

niarrak dira, baina herri eta klub askotako pelotariak ariko dira frontoian egun hauetan: Mundarro, Umore Ona, Oiarpe, Añorga, Alde Zaharra, Gazteleku, Zumaia, Ilunpe, Tolosa, Behar Zana, Intza, Lapke, Zesto, Ataun, Azkoitia, Eple, Gure Txeru, Izurun, Pagazpe, Aloña Mendi, Erreka.

Hain zuzen, guztira 22 talde lehiatuko dira, eta talde ezberdinetatik osatutako bikoteak ere egongo dira II. Zikuñaga Txapelketan.

Gaur jokatu dira lehenengo partiduak, frontoian

Egunero jokatu dira kategoria ezberdinetako partiduak kiroldegiko frontoian, 17:30etan hasita.

Gaur alebinak, lehenengo mailako kadeteak eta jubenilak,



Gaur hasiko da 51 bikoterekin osatutako II. Zikuñaga Papelera Torneo, kiroldegiko frontoian.

eta bigarren mailako nagusiak ariko dira lehiatzen. Alebinetan Makatzaga eta M.Alberdi, I.Alberdi eta Arretxeren aurka; Kadeteetan Etxeberria eta Olaitz Iriarte eta Andugarekin ariko dira buruz burukoan; Apaolaza eta Lasak Saralegi eta Alcantara

lehiatuko dituzte, jubeniletan; eta nagusietan, Etxabe eta Iñarra Eguskiza eta Mujikaren aurka ariko dira.

Errendimendu txapelketa, alebin eta infantilek

Txapelketa nagusiarekin bate-

ra, Pelota eskolako alebin eta infantilak ere jokatu dute, Hernaniko Errendimendu Txapelketa. Alebinen 5 bikote daude eta hauek eskuz binaka jokatuko dute. Infantilak, ordea, 10 pelotari dira eta banaka 4/5 barruan jokatu dute. **K**

Ostegunean hasiko dira KZ Guneak antolatutako uztailleko beste bederatzi zuzeneko hitzaldi, YouTuben

Goizetan eta arratsaldetan urruneko hitzaldiak antolatu dituzte eta askotariko gaiak landuko dira bertan, euskaraz eta gaztelaniaz.

HERNANI-ASTIGARRAGA KZ GUNEA

Harrera ona izan zuten maiatzeko antolatu zituzten zuzeneko hitzaldiek. Horregatik, antolatzailerik ekainean eta uztailaren ere urruneko plangintzarekin jarraitzea erabaki dute.

Horrela, guztira bederatzi saiotan banatu dute hilabete honetako egitaraua. «Hitzal-

di berri batzuk egiteko asmoa dugu, goizez zein arratsaldez», azaldu dute antolatzailerik.

Aurreko hitzaldietan egin zuten modura, zuzenekoetara joateko interesa dutenek «Interneteko konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita». Hitzaldiak entzuteko ez da izenik eman behar aldezturik.

Gainera, YouTube KZguneaTIC bidez, hitzaldietara bat egiteko sarbidea ez da konplikatu.

Denetarik ikasteko aukera, bederatzi hitzaldietan

Ostegunetik hasita gai asko landuko dituzte zuzenekoetan. Batez ere teknologia berriekin, zuzeneko konexioekin eta Internetarekin zerikusia duten gaiak jorratuko dituzte.

Besteen artean, Internet bidezko kontsumo arduratsua landuko dute, Gauzen Internet zer den azalduko dute, eta Inter-

neten nabigatzeko heziketa eta segurtasuna landuko dituzte.

Joan den hilabetean zuzeneko hitzaldi gehienak goizez izan ziren, baina uztailaren goizetan eta arratsaldetan izango dira. Egun batzuetan 11:00etatik 12:00etara eta beste batzuetan 18:00etatik 19:00etara.

Hilabete honen plangintza- ren lehenengo hitzaldia *Erosi etxetik irten gabe* izenburupean azalduko da. Kasu honetan gaztelaniaz izango da, arratsaldeko ordutegian. «Hitzaldi honetan online erosketen abantailak eta

desabantailak zeintzuk diren ikasiko duzu. Ezagutu ordaintzeko hainbat metodo eta mota guztietako produktuak aurkitzeko denda», azaldu dute KZ Guneak. Hitzaldiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, txandakatuta.

Bestalde, arduradunek jakinarazi dute asteartean online bilera egingo dutela. Eta webgunean zuzeneko hitzaldiekin bat egitera animatu dituzte ikus-entzuleak: «Bat egin YouTubeko gure komunitatearekin, eta gozatu gure hitzaldiekin». **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrik eta aseratu txarrekin
- * Beilatokiak
- * Erransketa
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

Gerizpe

Kafetegia-Okindegia

682 156 795

Kale nagusia 5, Astigarraga

Bikain

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

EGURALDIA
GAUR Fronte biki baten eragina sumatuko da eta giro iluna eta freskoa izango da. Goizean euri apur bat egingo du eta arratsalde-gau partean argitzeko joera hartuko du eguraldiak. **Min.15° / Max.19°**

BIHAR Tenperaturak nabarmen egingo du gora eta bero kontuak eta trumoi-ekaizak itzuliko dira. Arratsaldean ezegonkortasuna handituko da eta hodeiak sortuko dira. **Min.14° / Max.23°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Ereñotzuko Auzo Urtia
GOZUEKATU UDALA
ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gaez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK
USKO JARMURATZA GUBERNIO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia
PEFC

Gaztelekuak udako ekintza bereziak hasiko ditu gaur

Hernanin eta Astigarragan uztailean zehar egingo duten programazio berezia hasiko dute.

HERNANI-ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Bi herrietako Gaztelekuko hezitzaileek, urtero bezala, uztailean egingo dituzten ekintzak prest dituzte. «Hilabete hauek ez dira batere errazak izan eta familia askoren egoera ekonomikoa ere aldatu egin da», eta horregatik, hainbat ekintza proposatu dituzte, gaurtik uztailaren 24ra bitartean.

Izena ematea beharrezkoa da Antolatzaileek jakinarazi dute gazteek ez dutela dirurik ordaindu beharko ekintzetara joateko, baina «beharrezkoa izango da alde aurretik izena ematea eta konporomezua edukitzea». Hernaniko Gaztelekuak azaldu du: «aurten beste urteetan baino plaza gutxiago izango ditugu ekintza bakoitzerako (12) eta kopuru hori baino gazte gehiago apuntatzen bada, zozketa egin-

go dugu».

Hernaniko Gaztelekuak izena emateko epea gaur arte luzatu du, lehenengo asteko ekintzetarako. Bigarren asteko ekintzetarako, ekainaren 30a da apuntzeko azken eguna; 3.asterako uztailaren 7a eta 4.asterako, uztailaren 14a. «Izen emateko azken egunaren hurrengo egunean jakinaraziko ditugu parte-hartzaileen izenak telefono eta posta elektronikoki bidez», azaldu dute. Izena ematea <https://linktr.ee/hgaztelekua> estekaren bitartez egin daiteke.

Hernaniko Gaztelekuarekin harremanetan jartzeko ondorengo bideak erabili daitezke: gaztelekua@hernani.eus edo 943333212 telefono zenbakia.

Bestalde, Astigarragako Gaztelekuak antolatutako dituen ekintzak egiteko ere alde aurretik eman behar da izena. Kasu honetan, udalaren webgunean

ireki zen izena emateko esteka. Hala ere, edozein zalantza izanez gero, antolatzaileen emailera idaztea gomendatu dute: asti.gaztelokala@gmail.com.

Plangintza zabala antolatutako antolatzaileek

Astigarragako lehenengo egunean 'Hezitzaileen bila' ibiliko dira, eta denetarik egingo dute lau asteetan. Ordutegia 11:00etatik 14:00etara bitartean izango da, irteera egun batzuk izan ezik: Leitzaranera egun pasa, Santio mendira irteera edo karsetara txangoa. Guzti hauetan ordutegi ezberdina izango dute.

Hernaniarrek henna tailerrarekin irekiko dute plangintza gaur, eta abentura asko izango dituzte: surf ikastaroa Donostian, zirku tailerra, piragismoa, ginkana eta ur jolasak, beste askoren artean. Jakinarazi dute asteazkenetan ez dela ekintzarik izango eta antolatutako udal zerbitzu hau 12-17 urte bitartekoentzat dagoela prestatuta. Ordutegia ere ezberdina izango da egun bakoitzean. **K**

Ohiko Plenoa egingo da astearte honetan

Otsailetik aurrenekoz Ohiko Osoko bilera egingo dute 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan.

HERNANI UDALA

Hainbat gai jorratzeko egin da Ohiko Plenorako bilera-deialdia. Asteartean izango da, Pleno aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

Ezagutzera eman da Plenoan landuko den gai-zerrenda: 2020-05-25 eta 2020-06-11ko aktak onartzea; 2020ko dekretuak

702tik 817ra arte lantzea; Hernaniko Udalaren Kontu Orokorrarekin, 2019ko Kontu Orokorraren onarpena eta berri ematea, Barne Kontroleko txostena azalduta; 2020 Hernaniko eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Udal Plantilla Organikoa, eta Lanpostuen zerrendaren aldaketak onartzea; Udal Ondasunen inbentarioaren eguneratzea; SOS Arrazakeriak aurkeztutako mozioa eta ORAIN ARDURA herritarren ekimenaren mozioa lantzea; zinegotzi batek uko egitako idatzia azaltzea eta azkenik, erregu eta galderen txanda izango da. **K**



Hainbat gai lantzeko asteartean egingo dute Ohiko Plenoa Udaletxean.

Lurraldebusek mugikorrarekin ordaintzeko aukera eskainiko du

Asteazkenetik aurrera eskudirutan ordaintzea saihestuko duen teknologia jarriko du martxan Lurraldebusek.

URUMEA LURRALDEBUS

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak *ticketing teknologia* jarriko du abian asteazkenetik aurrera. Azaldu dutenez, «horrek ahalbidetuko du Lurraldebusen emakida guztietan mugikorretik ordaintzea». Gainera, hiriarteko garraioa eskudirutan ordaintzea saihestuko du.

Zerbitzu berri hau Lurraldebus osora zabaltzen da orain

Orain arte Loiu Aireportuarekin, Bilborekin eta Gasteizekin lotzen duten lineetarako bakkarrik zegoen eskuragarri, baina hemendik aurrera zabalagoa izango da eskaintza.

Lurraldebus txartelak esku-



Bisitariei, turistei eta noizbehinkako erabiltzaileei zuzenduta dago, bereziki.

dirutan erostea urtean 6 milioi euro inguruan zenbatetsi dela azaldu dute, eta orain mugikorretik erosi ahal izango dira hauek. Adierazi dute, «herritarren beharretara egokitu beharra dagoela».

Horregatik, online erosteko

aukerari esker, txartelak APP baten bidez (LurTicket) erosi ahal izango dira, inprimatu beharrik gabe. LurTicket bidez txartelak gehienez hilabete lehenago eros daitezke, eta bidaiari hasi baino ordubete lehenago aktibatu behar dira mugikorretik. **K**

Asteazken honetan irekiko da igerilekua

ASTIGARRAGA IGERILEKUA

Astigarragako igerilekua zabalduko da zenbait segurtasun neurri eta baldintzekin. Gaurtik aurrera hitzordua hartzeko epea eskatu ahal izango da udaleko webgunean dagoen aplikazioaren bitartez. Igerilekuen gehieneko edukiera eta aforoa mugatuko dute.

Frontoiean izena emateko azken egunak

EREÑOTZU FRONTOIA

Auzo Udalak jakinarazi du 2020-2021 denboraldirako Ereñotzuko frontoian ordua hartzeko epea astezkenean bukatuko dela.

IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean lan egiteko zerbitzari bat behar da. Urte osoko lana.

Idatzi: landepartamendua@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

AYTAN - ETXE TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46

Samitek
Bulego makinaren salmenta eta mantentzeak
samitek@samitek.es
www.samitek.es
TOSHIBA
INFORMATIKA SAIL BERRIA
943 11 77 44
Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak